

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IRUNGO UDALAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Irungo Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoen kontuak barne hartzen dituenak- legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra plazaratu du eta ekonomia-finantza jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete duela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak zenbaitetan urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: obra kontratu bat publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetzea, xedea aintzat hartuta prozedura ireki bidez izapidetu behar zatekeena; obrak dagokion espedientea bideratu aurretik egitea; eta obra kontratu batean jatorrizko aurrekontua % 33,5 igoarazi duen aldaketa bat izapidetzea, hasierako kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuratuz.

Udalaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du aurkezpen eta edukiari dagokionez; nolana den ere, azpimarratu du batetik ez dagoela ondasun eta eskubideen gaurkotutako zerrendarik, ez eta barne kontroleko prozedurarik, egoera balantzeko idazpuruetan jasotako zenbatekoek ondasun eta eskubideen 2010eko abenduaren 31ko egiazko egoera erakusten dutela bermatuko dutenik; eta bestetik, kontabilitateari egindako hainbat doiketaren ondorioz salbuespena dagoela, Udalaren Diruzaintza Geldikina 793 mila euroan murriztu dutenak.

Erakunde autonomo eta sozietate publikoei dagokienez, legea betetzeari eta urteko kontuei buruz HKEEk duen iritzia aldekoa da, nahiz ez-betetzereen bat eta salbuespenak azpimarratu diren, txostenean jaso direnak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitatearen likidazio, artekariaren kontrol, sarrera, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

.Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2010eko ekitaldian gastuari eusteko ahalegina egin dela adierazi da, aurrezki garbiak eta diruzaintza geldikinak gora egitea bideratu dutenak eta jakinarazi du, gainera, ekitaldi amaieran zorpetzea diru-sarrera arrunten % 62koa izan dela.